

# DIRU ITURRIA

Garrantzitsua da jakitea zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden bezeroak eskaintzen diegunaren truke. Baina faktore hau produktua martxan jarri baino lehenago aztertzea oso zaila da. Azken batean ez baitakigu bezeroek nola erantzungo duten.

Gainera aplikazio bat den heinean, gaur egun beraien eskaria handia da merkatuan, hau da, gero eta kontsumitzaile gehiago daude merkatuan. Eta nola ez, hori dela eta enpresa gehiago daude aplikazio mundu honetan, horrela eskaintza eta prezioaren arteko lehia gehiago sortuz. Faktore hau dela eta, bezeroa ez dago prest prezio altuak ordaintzeko eta diru iturria eskuratzea zaila izango da.

Nola nahi ere, diru sarrera moten artean gure irabazi iturria harpidetza prima izango da. Zerbitzu jakin batean, modu jarraian sartzeko aukera saltzean datza. Hau da, harpidetza ordainduko dugu. Harpidetzarekin lortuko digu diru sarreraren %70 gutxi gora behera; aplikazio hau erabili nahiko duten guztiek zertxobait ordaindu beharko dutelako, nahiz eta gutxi izan.

Bertan parte hartu nahiko duten pertsonak, beraien curriculumak aurkeztuko duten eta lanerako prest dauden langileek ere, ordaindu beharko dute. Beraiei lana aurkitzeko erraztasunak, eta baliabideak ematen baitizkiegu. Beste honen bidez gure irabazien %30 lortuko dugu. Harpidetzagatik ordainduko dutenak baino jende askoz gutxiago izango delako, baina gehiago ordaindu beharko dutelako.

Enpresa asteko garian inbertitu beharko den dirua aurreikustea ere oso garrantzitsua da, oso zaila baita diru hori lortzea eta kudeatzea. Gure kasuan aldiz, ez da arazo bat izango, aplikazioa bat den eanean ez dugulako dirurik beharko sortzeko. Baina publizitatea eta komunikazioa bai izango dira faktore garrantzitsuetako batzuk, azken batean, aplikazioa aurrera atera baino lehen bertan agertzekoa, lan egiteko prest egongo den jendea aurkitu beharko baitugu. Lehenengo hauek aplikazioan beraien burua jartzeagatik ez genieke ezer kobratuko, nahiz eta aurrerago ordainarazi egingo diegu, azken batean beraiei esker hasiko baitugu aplikazioa martxan jartzen.